

## FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Gure proiektu hau aurrera eramateko eta martxan jartzeko, hainbat funtsezko baliabide dira behar ditugunak; hauek giza baliabideak, baliabide fisikoak, finantza baliabideak eta baliabide intelektualak dira.

Giza baliabideen arloan zentratuz, taldekideon artean eta zenbait langileren artean antolatuko genituzke. Iratik bere diseinua garatzeko gaitasunarekin erabiltzaileei erraztasunak eta autonomia emango lizkieke. Aurrekoa hobeto egin ahal izateko Aneren gaiaren inguruko jakintasunaz baliatuko gara, horrela diseinua ahalik eta egokiena eta zehatzena izango da. Diseinu hau praktikan jartzerako orduan Manexen langileak motibatuzeko gaitasuna erabiliko dugu diseinatu bezalako produktuak lortu ahal izateko. Behin produktua eduki eta gero, Iraideren webgune baten diseinu praktikoa eta erabilgarriaz baliatuko gara. Ondoren, Unaxen saltzeko abileziarekin batera ahalik eta bezero gehienengana heltzeko eta horrela lesionatu gehiagori autonomia emateko.



Baliabide fisikoen aldetik, lanerako tailer bat erabiliko dugu piezen azkeneko muntaketa lanak egiteko. Lan hauek egin ahal izateko motorren euskarrien piezak beharko ditugu. Hainbat ordenagailu ere beharrezkoa da, bezeroen eskariak jasotzeko eta erosleekin komunikazioa mantentzeko. Telefono batzuk ere beharko ditugu telefonoz heltzen diren

eskariei, eta bezeroen zalantzei erantzun ahal izateko.

Gure proiektu hau finantzatu ahal izateko bankuari prestamo bat eskatuko diogu. Beranduago, irabaziak lortzen hasitakoan itzuliko geniona.

Baliabide intelektualei begiraturaz, bezeroen datu-base bat beharko dugu, euren pertsonalizazioak, aldaketak, eskaerak eta datu pertsonalak gordetzeko ahalik eta zerbitzu egokiena eta pertsonalizatuena emate aldera. Honetaz gain, datu-base honek eskarien prozesua azkartzen lagunduko luke euren hainbat datu lehendik dakizkigulako.

